

Hala izan ala ez izan...

1. diskoa

andere

harri pikatzailea eta lamina

akira eta zaindari zaharra

ogi ohointza

harri salda

mutiko gaztea eta animalia laguntzaileak

adiskide bila zebilen gatua

mutil gaixoa eta neskatxa dohatua

2. diskoa

senpereko laminak

bagdadeko bi adiskideak

sorgina eta konkorrak

alaba eta alabaizuna

lurra

ongia egiteak zer balio duen...

artzaina eta lamina

ANDERE I. diskoa - 1

Lehen istorio honetan erranen dizuegu nola deliberatu genuen herriz herri ibiltzea istorio kondan.

Duela zenbait urte, arrats batez, biak Itsasu eta Bidarra arteko mendietan ibilki ginelarik, giro bitxi bat sentitu genuen. Arratseko zortziak zitezkeen. Ohartu ginen emeki-emeki ordu arte entzun genituen azantzak, txorien tiutak, haizearen kantua, hostoen firfira, bata bestearen ondotik isiltzen zirela, norbaitek itzaltzen balitu bezala. Ez ginen batere fida.

–Jes! –erran nion Jokini–, zer gertatzen ari da?

Halere, arbolen artean aitzinatu ginen eta egundaino ikusi ez genuen harpe baten aitzineraino heldu.

Alta, Mondarraingo kaskoa hor berean genuen, Artzamendi ere, Iparla ez urrun. Ez ginen galduak!

Bat-batean, zerua urratu zuen argi bizi handi batek burua itzularazi zigun. Su-bola handi bat agertu zen Mondarrain kaskoan.

–Deabruen bisaia! –erran nion Kattalini–, zer da hori? Suziri bat? Kometa bat?

Zerua ziztu bizian zeharkatu zuen eta gu ginen tokira hurbildu zen. Orduan harrituak gelditu ginen.

Alimaleko marro batzuek orga ikaragarri bat tiratzen zuten eta orga horretan sekula ikusi ez genuen emazterik ederrena bazegoen, zutik. Ez ginen mugitzen ahal, hatsaren hartzera ere ez ginen menturatzen. Andere eder hura poliki-poliki orgatik jautsi zen eta guregana etorri.

Erran zigun beltzuri eginez:

–Guti dira tenore honetan ene etxetik pasatzera menturatzen direnak! Kopeta baduzue!

Horiek hola, egoten ahal zarete. Bisitari guti ukan dut azken denbora hauetan.

Andere izena dut. Batzuek Dama edo Mari deitzen naute.

Guk biek balditurik begiratzen genion. Eta orduan orro bat entzun genuen eta ohartu ginen behi gorri batek Andere segitzen zuela. Haren marrumak ongiatorria egiten zigun.

Ez dakigu zenbat denboraz egon ginen. Hipnotizatuak bezala ginen. Iduri zuen denbora gelditua zela.

Anderek harpearen sartzea erakutsi zigun eta erran:

–Hemen egonen naiz zazpi urtez. Sartu aitzin altxor bat utzi nahi dizuet. Gertatu zait urrea eskaintzea baina zuei opari arraroagoa emanen dizuet.

Eta istorio batzuk kontatu zizkigun, istorio xoragarriak, gu bezalako jende arruntak bekan baizik entzuten ez dituen ipuinak.

Gero, harpean sartu zen, azken behako bat eman zigun eta ilunpean desagertu zen. Bulta batez zur eta lur gelditu ginen, eta amets luze batetik iratzartzen bagina bezala, elkarri so egin genion.

Egun horretan deliberatu genuen herriz herri ibiliko ginela, istorio kondan.

Ipuina: Kattalin Salaberri eta Jokin Irungarai (Ikus azken orrialdeko oharrak)
Musika: Paxkal Irigoien

HARRI PIKATZAILEA ETA LAMINA I. diskoa - 2

Ezkerreko eskuan marteilua, bestean zizela, harri pikatzaile bat harkaitzaren puskatzen ari zen.

Gero, harri puskak idi bakarreko orga batean kargatu ondoan, harginari eramaten zizkion, etxeen eraikitzeko.

Kiski-kaska eta kaska-kiski, bortitza zen harri pikatzaileak egin behar zuen lana, zinez dorpea.

Harrobi aldean bizi zen lamina bat. Laminak maiz entzuten zuen gure gizona auhenka ari:

–Gaixo ni! Hau lan nekea! Gaixo ni! Hau bizi gogorra!

Behin, urrikaldurik, laminak galdegin zion:

–Zer egin dezaket zure alde? Zoriontsu ikusi nahi zintuzket...

–Ene zoriona nahi baldin baduzu, aberats egin nazazu!

Eta hara gure harri pikatzailea... jauregi eder baten jaun eta jabe.

Han ez zuen deusen eskasik. Denak ziren leun eta garbi. Kristalezko basoak, mirail urreztatuak, besaulki zabalak. Erhi ttittila altxatu orduko, han zituen sehiak eta mutilak bere zerbitzuko...

Denak bazituen, bai, baina kontxo, deus egin gabe, azkenekoz, enoagarri zen, zinez aspergarri!

Lamina deitu zuen eta erran zion:

–Erresumako boteretsuena izan nahi nuke...

Laminak keinu bat egin, eta hara! gure harri pikatzailea enperadore!

Eta zer da enperadore baten nahia? Bere erresumaren handitzea. Beraz, sekulako gerlak egin zituen, eta denak irabazi. Kasik Europaren erdia bere menpe zeukan. Errege ohiak eta armadetako buruzagiak haren aitzinean belauniko zeuden.

Baina botereak zer dakar? Bakartasuna. Enperadoreak ez zuen gehiago adiskiderik eta bere burua arrunt bakarrik sentitzen zuen.

Desesperatua zegoen eguerdi batez, begiak zerura altxatu zituen eta eguzkiari begira plantatu zen.

Bat-batean ideia bat ukan zuen. Lamina deitu zuen.

Eta hara! gure harri pikatzailea eguzki!

Eguzki izanez, mundu guzia goratik ikusten zuen. Haren dirdira zela medio, mendiek, haranek eta itsasoek itxura zoragarria zuten. Haren berotasunari esker, loreak irekitzen ziren, fruituak ontzen. Eguzkiak, haurrak eta jende helduak umore onean ezartzen zituen.

–Hau dena, niri esker! Gora ni! Nik ditut horiek oro manatzen. Enperadoreak baino indar gehiago badut!

Baina halako batean, hodei bat kokatu zen eguzkiaren eta lurraren artean.

Eguzkiak galdu zuen bere dirdira eta zerua ilundu zen:

–Kaka zaharra! Bada beraz eguzkia baino indartsuagorik!

Haserre gorrian laminaren ikustera joan zen.

Eta hara! gure harri pikatzailea hodei!

Hodei hark bota zituen euriak! Gau eta egun uharrak, zaparradak, erauntsiak, baratu gabe... Errekak hantu ziren, uholdeak gertatu... Jendea ikaran bizi zen...

Hodeia, bere sabelaren husten ari zelarik, harkaitz handi bati begira gelditu zen.

Harkaitza ez zen kantitzen, ez zen itotzen.

Gaitzitua, umiliatua, hodeiak ez zezakeen holakorik onets!

Berriz ere lamina otoiztu zuen, eta hara! gure harri pikatzailea harkaitz! Goiz batez, harkaitzak min samina oinetan sentitu zuen. Gizon bat ari zitzaion kiski-kaska, kaska-kiski marteilu eta zizelaz. Gero, harri puskak idi bakarreko orga batean kargatzen zituen. Harkaitza laminarengana itzuli zen.

–Zer nahi duzu oraino? –galdegin zion laminak– Zer demontre bilakatu nahi duzu?

–Gizon hori bezalakoa. Mailuz puskatzen ari nau eta!

–Baina... harri pikatzailea da –erran zion laminak irriz.

–Beraz, harri pikatzaile izan nahi dut.

Gure gizona, aberats, enperadore, eguzki, hodei, harkaitz izan ondoan, berriz harri pikatzaile bilakatu zen.

Orduan laminak erran zion:

–Konprenitu duzu, beraz, zer den hoberena? Bakoitzak bere bidea egin dezan, besteez beti jelos izan gabe. Segi dezagun hola, zu harri pikatzaile eta ni lamina!

Ipuin herrikoia

Musika: Paxkal Irigoien

AKIRA ETA ZAINDARI ZAHARRA I. diskoa - 3

Zein zoragarri zen gainalde haietarik ontziak itsas gainean lerratzen ikustea, mirail baten gainean bezala!

Akira zoriotsu sentitzen zen kasko hartan jarririk.

Umezurtz gelditu zenean, aitatzirekin bizitzera joan zen mendiko etxetto batera, urre koloreko irris alorren artera.

Han, txoriak bezain libro bizi zen eta eguzkia eta aire garbia adiskide zituen.

Jostetan eta lasterka ibil zitekeen goxoan. Zein ongi bizi zen mendiko bakean!

Mendiaren oinetan, eguzkiak itsasbazterreko herrixka erretzen zuen.

Akirak ederki ikusten zituen hango etxe ttipi zuri garbiak; herriak jostailu bat iduri zuen.

Gizon-emazteak eta haurrak xinaurri ttipiak bezala hara eta hona zihoazen.

Mendiaren eta itsasoaren artean lur zati luze eta hertsia bat baizik ez zegoen eta jendeak han eraikitzen zituen egoitzak.

Lur landuak eta pentzeak aldiz, mendi zelai heze eta emankorrean zeuden, Akira bizi zen tokian.

Haren aitatxi zen irris alor zabalen zaindaria. Eta mutikoak biziki maite zuen irris alor handietan ibiltzea.

Illoak irekitzen laguntzeko beti prest zegoen, irrisa ureztatu behar zelarik ere, eta uzta garaian nehork ez bezala haizatzen zituen txoriak. Akira zoriontsu zen. Aitatzik biziki maite zuen. Biak etxetto polit eta goxo batean bizi ziren eta senti zuen beste haurren bekaizgoa. Mutikoaren iduriko xahar indartsu eta serio hura gizonik hoberena zen.

Irris-buru horixkak eguzkitan dirdiran zeuden egun batez, agure zaindaria urrunera begiratu zuen, itsasoak eta zeruak elkar besarkatzen duten juntara. Soa zorrotz zuen, eta arranguratsu. Hodei handi eta beltz baten iduriko zerbait hauteman zuen, han, urrunean, ura zeruaren kontra altxatzen ari balitz bezala.

–Akira! Etxetik ekariezadak adar batean su pixka bat! Erna hadi!

–Aitatxi, zer egiten ari zara? Zer egin nahi duzu?

–Laster, laster, Akira, irris guziari su eman diezaiogun!

Lehenik su apal bat hasi zen lastoen erretzen.

Franko laster gar gorri beldurgarriak hedatu ziren eta berehala alor guziak suntsitu zituzten.

Iduri zuen mendia bera zela zeruraino ketan igaten.

Behere hartan, herritarrek beren alorrek sutan ikusi zituztelarik, lasterka abiatu ziren maldan gora, amorrutako oihuak botaz, etsiturik, beren indar guziak suaren kontrako lehia horretan ezarriz. Gizon-emazteak saldoan heldu ziren, haurrak bizkarrean harturik.

–Nork egin du makur hori? Nor da su emailea?

–Nik dut egin.

–Zergatik egin duzu? Erraguzu zergatik!

–So egizue hara!

Lehen, itsasoa miraila bezain leuna zen, baina orain zerurainoko uhin erraldoi bilakatua zen, uhin ilun eta ikaragarria, orroaz heldu zena, herensuge suntsitzaile baten gisan.

Beldurra hezurretaraino sartu zitzaien denei.

Mututurik gelditu ziren...

Uhin erraldoia marrumaka hurbildu zen eta itsasbazterrean uzkaile, gauzak oro puskatuz, xintxikatuz, xehakatuz eta azkenik ihurtzuri haserretu bat bezala lehertu zen mendiaren kontra burrunba lazarria sortuz.

Segidan beste uhin bat ateratu zen, ttipiagoa, eta denbora guti barne itsasoa betiko lekura erretiratu zen, deus gertatu ez balitz bezala.

Lurra nahasia eta iraulia agertu zen.

Herrixka desagertu zen, uhin handi hark irentsi balu bezala.

Agure zaindaria herritarrei so egin zien, begirada bozkarioz beterik.

Herriko bizilagunak mendi kaskora erakarrit, itsasoaren aztaparretatik salbatu zituen.

Ipuin herrikoia

Musika: Paxkal Irigoien

OGI OHOINTZA I. diskoa - 4

Martintxok, mendian goiti abian zen egun batez, basajaunak ikusi zituen alor batean, lan eta lan ari.

“Zertan ari ote dira?”, pentsatu zuen. Hurbildu zitzaien eta barrandan egon. “Ogi jotzen ari dira! Eta zer meta! Laborariak baino hobeki bizi dira hauek!” Haiengana joan zen.

–Ematen ahal dizkidazue zenbait ogi bihi? –galdegin zien bere alorrean ereinen zituela pentsatuz. Baina basajaunek ez entzunarena egin zuten.

“Ez baldin badute nahi, nola edo hala erdietsi behar dut!”, erran zuen bere baitan Martintxok.

Eta dzast!, bat-batean ideia bat bururatu zitzaion. Orduan hauxe erran zien:

–Apustu egiten dizuet ogi bihi meta horren gainetik jauzi egin dezakedala.

–Ha! Ha! Ha! –irri egin zuten basajaunek.

Baina biharamunean, Martintxo basajaunengana itzuli zen, aitaren botak soinean.

–Ha! Ha! Ha! Bota pisu horiekin jauzi egin nahi dukala? Ha! Ha! Ha!

Bat... bi... hiru! Gure mutikoak oldarra hartu zuen eta... plast!

Ogiaren erdira erori zen!

–Ha! Ha! Ha! Ho! Ho! Ho! Hi! Hi! Hi! –basajaunak irriz karkailaka ari ziren, kasik itotzeraino.

Martintxok, burua apal, handik alde egin zuen. Emeki zihoan, emeki–emeki, tirrist-tarrast, aitaren botak bihiz beteak zirelako.

Halako batean:

–Arraioa! –oihu egin zuen haietarik batek Martintxok jukutria egin ziela oharturik– ogia ebatsi digu!

Eta brasta-brasta, denak mutikoaren ondotik abiatu ziren. Heldu zirela entzutearekin, mutikoa ihurtzuriak erre pago batean gorde zen eta han egon isil-isilik.

Basajaunek denetan xerkatu zuten... debaldetan!

–Goazen hemendik –erran zuen batek, eta eskuan zuen harrizko aizkora errabiaz aurtiki zuen.

Aizkora, sasta!, Martintxo zegoen arbolaren enborrean landatu zen. Mutikoa ez zen higitu.

–Ogia ebatsi digu baina ez daki noiz erein behar den –erran zuen basajaun batek.

–Ha! Ha! Ha! Ez daki, eta ez du egundaino jakinen! –gehitu zuen beste batek.

Eta orduan, denak betan, kantuz hasi ziren:

–Hosto agertze arto ereite;

hosto erortze ogi ereite;

San Lorenzo eta arbi ereite.

Martintxok enborraren barnetik dena entzun zuen eta kantuak zioena gogoan hartu.

Gure arbasoek diotenaren arabera, Martintxori esker zabaldu zen ogia Euskal Herrian gaindi.

Ipuin herrikoia

Musika: Xabi Etxeberri eta Jokin Irungarai

HARRI SALDA I. diskoa - 5

Bi eskaleren istorioa da, Manezen eta Pettereren istorioa. Herriz herri zebiltzan. Lehen, pobreek bazekiten zein etxetan ziren ongietorriak. Horregatik aste guzietz bisitaño baten egitera joaten ziren etxe haietara.

Baina bi gizon horiek alfer ziriak ziren; ez zuten sekula eskukaldi bat eskaintzen.

Hori dela eta, Maiena laborari prestuak bere korralean sartzen ikusi zituelarik, erabaki zuen ez zela urrikalduko eta ur ontzitarra bat baizik ez ziela emanen, bai eta ere lo egiteko xoko bat, selauruan.

Hara, beraz, gure bi zirtzilak atean joka. Maienak ireki zien eta erran:

–Zein gaizki heldu zareten! Ogi eskasean naiz. Auzoari galdegin beharko diot arrats honetako doia.

Manez, bietarik abilena, ohartua zen Maienak ez zuela usaiako begitarte, eta erran zion:

–Ez ezazula bururik hauts, gaixo etxekoandrea. Egun ez dugu lasto pixka bat baizik behar pixkolatzeko.

–Lastoa baizik ez baldin baduzue behar, gure selaurua hartaz betea da. Zoazte gustuan!

Pette harritua zen, ez zekien zer pentsa. Lagunari begiratzen zion zerbait erran nahiz, baina hark isiltzeko keinua egin zion. Emaztea eskertu zuten eta igatekotan zirelarik, Manezek erran zuen:

–Banizuke, bai, zerbait eskatzeko. Gure afaria zure su gainean egosarazten ahal duguia? Gaur harri-salda eginen dugu.

–Harri-salda?

–Bai, hori da guk, pobreek, ezagutzen dugun errezeta bat.

Manezek orduan eltze bat galdegin zion eta urez bete zuen. Korralean harri lodi zenbait bildu zituen, eta iturrian garbitu ondoan egosten ezarri. Memento baten buruan aire misteriotso batez, erran zuen:

–Errezetak sekretu bat badu, eta ez dakit salatzen ahal dizudanetz.

Emaztea jakin-minak jana zegoen. Eskua papoaren gainean ezarri zuen eta zin egin zuen ez ziola sekula santan nehorik salatuko.

Orduan, Manezek erran zuen:

–Egia erran, aza bat behar litzateke.

–Ez baldin bada besterik, berehala banoa baten xerka.

–Bai, eltzearen erdi-erdian ezarri behar da eta harriak inguruan. Zinez salda hauta izan dadin eta harriek beren gustu hoberena eman dezaten, hiruzpalau pastanagre eta beste hainbeste patata gehitu beharko genizkioke. Pena da ez baititugu! Berdin munta du; dugunarekin eginen dugu.

Maienak orduan erran zuen ez zela berantegi eta lasterka abiatu zen eskas ziren baratzekarien bila. Eta eltzean sartu zituzten.

–Orain, salda zaindu behar da –erran zuen Manezek. Beste egitekorik baldin baduzu, zoaz, guk begia atxikiko diogu. Egina izanen delarik, oihu eginen dizugu.

Emaztea behi jeztera joan zen. Jeztetik gelditu zelarik, supazterrera itzuli zen. Bi arloreek salda guzia ikimiliklik irentsia zuten eta gainera Maienak beretzat prestatua zuen xingar puska ere. Ontsa engainatu zuten!

Bere baitan erran zuen: “Urde horiek engainatu naute baina orain, ene aldi!”

Alegia deus ez, galdegin zien:

–Ez duzue ene gatua ikusi, aments?

–Ez!

–Beraz, ongarri metaren gainera joana dateke leher egitera!

–Zergatik leher egitera?

–Arratoientzat prest ezarria nuen xingar puska pozoindatua jan duke.

–Xingar puska pozoindatua?

Erranaldia bukatu orduko korralearen erdian zeuden biak, goitika, tripako minez, barnean zuten guzia husten ari.

Orduz geroztik, Maienak ez zituen sekula gehiago bazter haietan ikusi.

Ipuin eta musika herrikoiak

MUTIKO GAZTEA ETA ANIMALIA LAGUNTZAILEAK I. diskoa - 6

Pello mutiko gaztea etxetik abiatu zen, zakua bizkarrean, bi sos eta ganibeta sakelan, etxalde batean mutil hartua izateko asmoarekin.

Bidean aurkitu zituen bele bat, arrano bat eta xinaurri bat, zaldi hil baten gainean pausatuak.

Pellok galdatau zien:

–Zer ari zarete hor?

Erantzun zioten haragi hartarik jan nahi zutela baina ez zekitela nondik has. Mutikoak ganibeta sakelatik atera zuen eta zaldia puskatu.

Arranoak erran zion:

–Adiskidea, nik ere ene zerbitzuak eskaini nahi dizkizut. Sekula ene beharretan gertatzen baldin bazara, dei nazazu eta sokorrituko zaitut.

Beleak erran zion:

–Nik, aldiz, nahi baldin baduzu, itsasoak edo ibaiak zeharkatzeko, airean eramanen zaitut.

Xinaurriak erran zion:

–Eta sekula gorde nahi baldin baduzu, nik lagunduko zaitut.

Entzunak entzunik, mutikoa aitzina joan zen.

Amuarrain ttipi bat ikusi zuen lurrean errekatik jauzian jalgia.

Urrikalmenduz eskuan hartu zuen eta urera bota.

Amuarrainak erran zion:

–Salbatu nauzu! Egun batez, ene edo ene lagunen beharretan baldin bazara, zure zerbitzuko izanen gara.

Geroxeago, mutiko gaztea Errege zegoen herrira heldu zen eta jauregian zerbitzari gisa hartu zuten.

Zenbait egunen buruan, Erregek jakin zuen itsasoaz bestaldean zeukan erresuman, herensuge batek bere bidean aurkitzen zituen jende guziak irensten zituela. Erregek Pello deitu zuen.

–Gazte, izan hadi ongi etorria!

Badiagu norbait indartsuren behar gorria...

Erresuma suntsitzen ziguk herensugeak.

Sari ona ukanen dik haren hiltzaileak!

Gainera, eskainiko zioat alaba maitea,

oso ederra eta ontasunez betea!
 –Munstroa gudukatuko dut, eta garaiturik
 ekarriko dizut, buruak mozturik!
 Berehala itsasbazterrera joan zen, baina nola egin bestaldera joateko?
 Txaluparik ez zegoen. Hegalak beharko zituzkeen itsasoa zeharkatzeko.
 Orduan beleak erran zuen:
 –Hemen naiz, zure ondoan. Jar zaitez ene bizkar gainean.
 Eta airatu ziren uraz bestaldera, herensugearen ondora.
 Borroka ikaragarria hasi zen orduan, dena odol, dena su. Pellok ez zezakeen munstroa garai! Eta erran zuen:
 –Beste adiskideei eskatu behar zieat laguntza.
 Hi, arrano, haugi, entzun ene otoitza!
 –Ez zaitezela beldur izan, lagunduko zaitut, eta nola!
 Gu biak elkartuz gero, irabaziko dugu gerla!
 Eta hola gertatu zen... Herensugeari zazpi buruak eta hegala moztu zizkieten, eta horrek ikaragarriko orro batean, azken hatsa bota zuen.
 Jende guzia pozik, oihuka ari zen: “Munstroa hil du! Erresuma salbatua da! Munstroa hil du! Erresuma salbatua da!”
 Baina jauregiko bidean bi gizon itsusi agertu zitzaizkion:
 –Hilen haugu eta Erregeren saria guk diagu eskuratuko!
 Beharrik xinaurria eskualde hartan zen. Bere laguntza eskaini zion.
 Eta gure mutiko gaztea, mirakuluz bezala, bat-batean xinaurri bilakatu zen eta besteen bistatik desagertu...
 Bi gizonak, espantuka, Erregeren agurtzera joan ziren sinetsarazi nahiz berek zutela herensugea bentzutu. Baina orduan Pello agertu zen eta Erregeri herensugearen zazpi buruak erakutsi zizkion, bi gizonen jukutria salatuz.
 Erregek bi gizonak urkarazi zituen.
 Pellori, aldiz, haxe erran zion:
 –Ene populuaren izenean, esker mila!
 Ene alaba bakarra, hire emaztea izan dadila!
 Printzesak, orduan:
 –Nik, gizon horrekin ezkondu beharko?
 Bizi naizeno ez dut holakorik onartuko!
 Oraintxe urera bota dudana atzemanen duen gizona,
 hura izanen da bai, hura, ene senar kuttuna!
 Pello, urari buruz otoizten hasi zen:
 –Laster, laster, amuarra xarmanta,
 izan hadi galanta:
 bila ezak eraztun baliosa,
 bilaka nadin printzesaren esposa!
 –Begira ezazu, hementxe berean duzu...
 Zure altxorra izan bedi,
 printzesa zure esku dadin geldi!
 Pello loriaturik printzesarengana joan zen:
 –Ez dea hau zuk urera bota duzun eraztuna?
 –Zu zara, zu, bihotz noblea, zinez jaunena jauna!
 Zurekin ezkonduko naiz. Goazen aita Erregerengana!

Ipuin herrikoia
 Musika: Paxkal Irigoien

ADISKIDE BILA ZEBILEN GATUA I. diskoa - 7

Noiz ote zen? Behiala. Non ote? Han nonbait, oihanean, nork daki xuxen non. Hara, beraz, istorioa.

Gatu baten istorioa da. Bakarrik bizi da. Enoatzen da. Urmaelera joaten da eta igelari erraten dio:

–Adiskide gaitezen hi eta ni. Uretik atera hadi eta kalakan ar gaitezen.

Igela aintziratik jalgitzen da eta biak eleketan hasten dira, honetaz eta hartaz. Orduan antilope bat agertzen da eta igelaren gainetik pasatzen, piko ustel bat bezala lehertuz. Plok! Adio igela! Bereak egin du.

Gatua antilopearen ondotik lasterka abiatzen da, eta oihukatzen dio:

–Hago, hago ene beha! Biak adiskide bilaka gaitezken! Kalakan ariko gaitun, eta istorio kondan.

Antilopea gelditzen da. Eleketan hasten dira, honetaz eta hartaz, eta adiskidetzen dira. Baina berroen gibeletik lehoinabar bat jalgitzen da. Antilopearen gainera jauzi egiten du. Aztapar ukaldi batez hiltzen du eta ikimiliklik irensten!

Gatuak lehoinabarrari erraten dio:

–Errak, gu biak odol berekoak gaituk! Lagun izan gaitezkek! Ene ondoan jar hadi eta zenbait istorio konta iezadak.

Lehoinabarra gatuaren ondoan jartzen da eta goxoan mintzatzen hasten direlarik, hara non elefante bat oihanetik ateratzen den. Denek dakigun bezala elefanteak eta lehoinabarrak etsai amorratuak dira. Beraz, elefanteak bere hortz ikaragarriak tripan sartzen dizkio eta hor berean xintxikatzen du.

Orduan gatuak elefanteari erraten dio:

–Hi bezalako laguna nahi diat nik, handia eta azkarra. Haugi, ene ondora hurbil hadi, zenbait berri kontatuko ditiat.

Elefantea konkortzen da eta gatuari behatzen dio. Gizon bat heldu da; ihiztaria da.

Arkua harturik geziak ziztuan aurtikitzen ditu. Elefantea hiltzen du!

Gatuak pentsatzen du: “Ez dut zorte onik lagunekin. Ihiztari horrek azkarra dirudi, biziki azkarra. Nehork ez dio kalterik egiten ahal, lagun ona izan daiteke enetzat, luzarako laguna!”.

Eta ihiztariaren ondotik joaten da haren etxolaraino.

Ihiztariaren emaztea etxola aitzinean dago. Senarrari galdegiten dio:

–Ez duk deus ere ekartzen afaltzeko?

–Elefante bat garbitu dinat.

–A! Eta non duk? Ez diat ikusten. Hoa xerka!

–Akitua naun –ihardesten dio senarrak–, gero joanen naun.

–Gero dioenak bego dio –haserretzen da emaztekoa–. Hoa berehala, gizon ezdeusa, hi! Orduan ogiaren lehertzeko baliatzen duen zaparria hartzen du eta senarraren jotzen hasten da. Gizonak oihu egiten dio:

–Baietz, baietz, banoan!

Eta lasterka joaten da hil berri duen elefantearen bila. Hara! Gizonik ez gehiago! Joana! Tarrapatan joana!

Gatuak emaztearen zangoak ferekatzen ditu. Xurrungan erraten dio:

–Zu bai, zu zinez azkarra zara! Azkarrena, funtsean! Biak adiskidetuko gara. Elkarri zernahi istorio kontatuko diogu. Bai, zu eta ni, adiskide egingen gara betiko. Nahi duzuia?

Emazteak baietz erantzuten dio. Geroztik emaztea eta gatura lagun minak dira. Gatuak dakiena emazteak ere badaki. Gatuak emaztearen sekretu guziak badakizki. Zinez ontsa akomeatzen dira. Eta nik uste betiko den!

Ipuin herrikoia

Musika: Jokin Irungarai

MUTIL GAIXOA ETA NESKATXA DOHATUA I. diskoa - 8

Beste anitzek bezala, mutiko batek etxetik joatea deliberatu zuen bere ogiaren irabazteko eta mutil sartu zen nagusi baten zerbitzuko. Nagusiak manatu lanak eta aginduak bete behar zituen lansari baten truke.

Nagusi horrek hiru alaba bazituen eta haietarik batek dohain bereziak zituen.

Lehen egunean, mutila jaiki zelarik, etxeko jaunak hola agindu zion:

–Hango larrea garbi ezak, mahastia landa eta mahasti horretako arnoa eguerdiko ekariezadak.

Mutila, ikusiz ezinezko lana eman ziola, negarrez hasi zen. Dohain bereziak zituen neska hurbildu zitzaion:

–Zer duzu negarrez?

–Zure aitak egin ez dezakedan lan bat manatu dit.

–Ene ileetan mia ezazu.

Eta neska lurrian jarri zen. Mutikoa ileen miatzen hasi zen eta bat-batean larrea desagertu zen, mahastia sortu eta dena mahats mulkoz estali zen. Laster mahats guzia ondu zen eta neskak botila bat luzatu zion arnoz bete zezan.

–Tori, jauna –erran zion mutilak nagusiari.

Biharamunean nagusiak erran zion:

–Ikusten duk hantxetako mendia? Hango lurra iraul ezak, ogia erein eta eguerdiko opil bat ekariezadak.

Mutila, agindu bezala, mendi hartara joan zen, baina bihozgabeturik berriz ere negarrez hasi zen.

–Zer duzu negarrez?

–Gaur ere obra ez dezakedan lan bat manatu dit zure aitak.

–Ene ileetan mia ezazu.

Mutikoa ileen miatzen ari zen bitartean, lur-peza iraulia, ogia ereina eta berehala urre koloreko galburuz estalia agertu zen. Orduan, ogia jada ondua zelako, opil borobil-borobil bat heldu zitzaion eskura. Nagusiari eraman zion eguerditan ttanko, eta erran:

–Tori, jauna, eskatu didazun opila.

Ondoko egunean etxeko jaunak haxe manatu zion:

–Ene andre zenaren eraztuna itsasoan duk, lau parte eginik. Atzeman ezak eta eguerdiko ekariezadak.

Aldi honetan ere mutikoa etsimenduak errautsia. Neska hurbildu zitzaion eta erran zion:

–Zer manatu dizu aldi honetan?

–Zure ama zenaren eraztuna itsasoan omen da, lau parte eginik. Atzeman behar dut eta eguerdiko ekarri behar diot.

–Zoaz itsasbazterrera. Han txalupa bat atzemanen duzu eta ni joanen naiz zurekin eraztunaren bila.

Mutikoak hala egin zuen. Itsasora heltzearekin neskak erran zion:

–Egin behar nauzu lau puska, baina ez ezazula odol xorta bakar bat ere txalupan isurtzera utz. Gero berehala urera bota nazazu.

Neska puskatu ondoren itsasora bota zuen, baina ondikoz odol xorta bat isuri zitzaion.

Laster uretik atera zen eraztunaren lau puskekin. Mutilari eskua erakutsi zion: erhi bat eskas zitzaion isuri odol xortarengatik.

–Zoaz orain etxera, eraztunaren ematera.

Nagusiak, eraztuna eskuratzean pentsatu zuen bazuela mutiko hark jakitate eta zuhurtzia handia, eta erran zion:

–Ene alaba zaharrenarekin esposatu behar duk.

–Ez. Amodio bera dut zure hiru alaben aldera. Begiak estaliko dizkidazu eta hautatuko dudanarekin esposatuko naiz.

Nagusiak baietz erran zion. Afalondoan begiak zapi batez estali zizkion.

Erran bezala, hiru neskak presentatu zitzaizkion. Azkena eskutik hartu zuen, eta, oharturik erhi bat falta zitzaiola, erran zuen:

–Nagusi, hau dut andretzat behar.

Ezteiak biharamunean berean ospatu ziren eta jaun-andere espos berriak mutikoaren sorlekura joan ziren bizitzera. Han berean, luzaz eta uros bizi izan ziren.

Ipuin herrikoia, Mayi Ariztiaren Amattoaren uzta bildumatik egokitua

Musika: Xabi Etxeberri

SENPEREKO LAMINAK II. diskoa - 1

Duela bizpahiru mende, laminek ba omen zuten egoitza bat Senperen, Utsaleko zubiaren azpian. Baina, nahi bezainbat begiraturik ere, nehork ez omen zuen barne hartako berririk jakiten ahal.

Behin batez, lamina haietarik bat hilzorian gertatu zen. Haren lagunek bazekiten azkenetan zela, baina lamina ez zitekeen hil gutarteko batek, lamina ez zen batek, hura ikusi eta haren aitzinean otoitz labur bat erran gabe.

Lamina joan zen, beraz, Gaazetxean zuen ezagun baten bila eta erran zion:

–Jin behar zara, otoi, gure etxeraino. Gure lagunetarik bat arras gaizki da eta azken hantsa ez du botatzen ahalko ez baldin baduzu ikusten eta azken otoitz bat erraten

haren aitzinean. Sari ederra ukanen duzu: berrogeita hamar liberako txanpon bat eta opari ikusgarri bat ere.

Berrogeita hamar libera ez zen guti eta Gaazetxeko etxekoandreak laminarekin joatea deliberatu zuen. Utsaleko zubiraino heldu zirelarik, laminak hola erran zion andereari:

–Gero, gure etxetik ateratzean, zure gibelean azantz bat entzuten baldin baduzu, ez zaitezela itzul! Zoaz beti aitzina zure bideari, bestenaz saritzat ukan oparia galduko duzu, zu ohartu gabe ere.

–Ontsa da, ez dut gibelera so eginen.

Utsaleko zubira heldu ziren, beraz, eta, laminen etxean sartzeko erreka iragan behar baitzen, laminak ziri berezi batez jo zuen eta ura bitan bereizi zen. Biak iragan ondoan, laminak berriz ere ziri bereziaz jo zuen eta ura berehala bere lekura joan zen. Gure anderea etxean sartu zen, eta hilzorian zen laminarengana hurbildu zen. Otoitz labur bat erran ondoan, kanpora abiatu zen.

Baina laminek ez baitzuten nahi tripa hutsik joan zedin, erran zioten:

–Ahamen bat janen duzu bideari berriz lotu aitzin.

Eman zioten, beraz, askaria, arras ona gainera, eta, hitzeman bezala, berrogeita hamar liberako txanpon bat eta urrezko tabako-ontzi ikusgarri bat ere. Gure emaztekoa joan zen, kontent baino kontentago, bere gaua ongi baliaturik. Bat-batean, harrabots bat entzun zuen bere gibelean. Burua, brau! itzuli zuen eta adio urrezko tabako ontzia!

Zubiraino heldu ziren lamina eta biak, eta berriz ere ziri bereziaz ura jo zuen, baina... aldi honetan ura ez zen bitan zatitu. Berriz ere jo zuen, baina aldi honetan ere debalde!

Laminak bazekien zergatik ez zen ura bereizten.

–Ustekabean gure etxetik zerbait hartu dukezu.

–Ez dut uste, andere lamina. Beharbada josteko orratz bat... Ez, ez dut fitsik aurkitzen.

–Alta, nik ez dut ura bereizten ahalko zuk hartu duzuna aitortu arte eta hemen gelditu beharko gara.

–Nik dudan gauza bakarra mokanes honetan troxaturik atxiki dudan ogi mutur hau baizik ez da; etxeko hartua dut, zuen ogia zein zuria den ikus dezaten.

–Nornahiri gerta lekiok. Baina gure etxetik ez daiteke den mendrenik atera. Horregatik otoizten dizut ogi puska hori itzul diezadazun, zeren eta gure gauzarik nehork ez baitu ikusi behar.

Emazteak ogi puska itzuli zion eta laminak ziriaz jo ondoan, ura berriz zatitu zen, eta orduan lamina desagertu.

Gaazetxeko andere gaixoak ez zuen joan-jin bat baizik irabazi gau hartan, zeren eta etxera heldu orduko, berrogeita hamarreko sosa desagertu baitzitzaion sakelatik.

Horra zergatik gaurko egunean ere, ez dakigun xuxen laminak nolakoak diren, zertaz bizi diren eta nolako bizilekuetan.

Ipuin herrikoia

Musika: Paxkal Irigoien

BAGDADEKO BI ADISKIDEAK II. diskoa - 2

Bagdad oraino Bakearen Hiria deitzen zelarik, bi merkatari han bizi ziren. Lagun minak ziren. Ttipi-ttipitik elkar ezagutzen zuten. Haur denboran auzoko karriketan jostatzen ari izanak ziren, elkarrekin ibiliak ziren eskolan eta aste berean saltoki bedera irekia zuten. Haien aferak arras ongi zihoazen eta denbora gehiena elkarrekin iragaten zuten.

Behin, bietarik batek deliberatu zuen Basorara joatea, hiri handi hartan afera gehiagoren egiteko xedetan. Lehen aldia zen bi adiskideak bereizten zirela.

Bagdaden gelditua zenak gero eta diru gehiagoren irabazten segitu zuen. Aldiz, Basorara joana zenari denak makur joan zitzaizkion eta zenbait denboraren buruan turrindua gelditu zen, pilik gabe.

Bihozgabeturik, emazteak erran zion:

–Zoaz zure Bagdadeko lagunaren ikustera. Laguntza eska iezaiozu; ez zaitu kinka txarrean utziko.

Gizonak bazuen bere urguilua baina ez zuen hola segitzen ahal. Biharamunean, gusta ahala gusta, Bagdad aldera abiatu zen. Bide luzea zen. Bere adiskidearen etxea atzeman zuen eta atean jo. Bagdadeko merkatariak berak zion atea zabaldu. Honek haur denborako laguna pildetan ikusi zuelarik, mehatua eta zikina, atea muturrera hetsi zion. Zein triste izan zen gibelerateko bidea! Ordu arte miseria ezagutua zuen, orain pena ere bazuen. Etxeratu eta, emazteari erran zion:

–Denak ontsa doazelarik lagunak ondoan dituzu, baina peko errekan zarelarik, lekutzen zaizkizu.

Adiskidearen egite horrek bihotza urratu zion.

Gau batez, Basora guzia lo zegoelarik, norbaitek atea jo zuen. Gure gizonak, urduri, atea ireki zuen. Atarian emazte gazte bat zegoen, beltzez beztitua, aurpegia oihal batek gorderik. Eskuan pisu iduri zuen zaku bat atxikitzen zuen. Sartzen ahal zenetz galdegin zion.

Barnean zelarik erran zion:

–Ene senarra hil berri da eta hil aitzin balio handiko joia horiek utzi dizkit. Saldu nahi nituzke baina ez dakit fitsik merkataritzaz. Zu, aldiz, salerosle trebea omen zara. Joia hauek saltzen baldin badituzu, salmentaren mozkina partekatuko dugu.

Biharamunean berean gizona, kontenxko, erosle batzuen ondotik abiatu zen. Ilunabarreko, denak prezio onean salduak zituen.

Emaztea itzuli zelarik haren partea eman zion eta berea atxiki. Gizonak irabazi diruari esker jantziak eta jatekoak erosi zituen, baita merkatuan saltzen aritzeko toki bat ere. Hola saltzaile lanetan berriz hasi ahal izan zen. Bizia hobeki zihoan.

Aste bat berantago, gauetz gau, berriz ere norbaitek atea jo zuen. Gizon gazte bat zen. Sartu zen eta erran zuen:

–Ekialdeko zetazko tapiza andana bat irabazi dut pariotan. Ehunka dira eta ez dakit nondik lot. Merkataritzaz tutik ez dakit. Laguntzen ahal nauzuia? Saltzen baldin badituzu irabaziak partekatuko ditugu.

Basorako salerosleari iduritzen zitzaion ametsetan ari zela: bigarren aldikotz zoria haren alde agertzen zen? Ezin sinetsia!

Aste bat barne tapiza guziak salduak zituen eta irabaziak gizon gaztearekin partekatu.

Diruari esker etxea konponarazi zuen eta familia guziari oturuntza bat eskaini.

Gelditzen zitzaion diruaz saltegi bat erosi zuen hiriko karrika nagusian. Ez zuen gauza handirik irabazten, baina bederen egunekoa ateratzen zuen. Bere baitan zioen:

–Jainkoari esker zortea itzulikatu da!

Hiru aste iragan ziren. Goizalde batez norbaitek atean jo zuen. Gizon gazte bat sartu zen

eta erran zion:

–Ene aita hil berri da. Ondoko egina nau eta balio handiko ehunak utzi dizkit. Hainbes te bada non ez baitakit horietaz zer egin. Aldiz, dirua lehenbailehen behar nuke lanean hasteko. Zure gain hartzen ahal duzuia horien saltzea? Irabaziak partekatuko ditugu.

–Baietz, bai –erantzun zion saltzaileak.

Erosleak atzeman zituen eta denak prezio onean saldu. Diru anitz bildu zuen. Partekatu ondoan ere, dirutza ederrarekin gelditu zen. Bizi ederra hasi zen orduan familiarentzat. Haren denda berrian aferak arras ongi zihoazen.

Goiz batez bere andrearen ikustera joan zen eta erran zion:

–Orain fortuna berriz egina baitugu eta arras ontsa bizi baikara, Bagdadera joanen naiz ene haur-denborako lagunaren ikustera. Bekoz-beko erran behar diot zer pentsatzen dudan.

Gizona abiatu zen. Lagunaren etxera heldu zen eta atean jo zuen. Honek ireki zuelarik Basorako saltzaileak erran zion:

–Ez du balio atea hets dezazun. Orain aberatsa naiz eta osagarri onean eta ez dut deusen beharrik. Ez naiz lagun gisa etorria baina hainbeste urtez elkarretaratu gaituen adiskidetasunaren moztera.

–Ongi da –erantzun zion Bagdadeko merkatariak–, baina gure istorioa bururatu aitzin azken aldikotz ene etxean sar zaitez. Zerbait erakutsi behar dizut. Gero joaten ahalko zara.

Basorako gizona egongelan sartu zen. Hiru gazte tea edaten ari ziren. Burua altxatu zutelarik, etxera etorri zitzaizkion anderea eta bi gizon gazteak ezagutu zituen.

Zur eta lur gelditu zen. Lagunak hola erran zion:

–Ene etxera etorri zinen lehenbiziko aldian, arlote baten gisa ikusi zintudalarik penak erraustu ninduen eta atea hetsi nizun... Ez nizun eskale bati bezala dirua eman nahi. Ene seme-alabak igorri dizkizut salgai batzuekin. Berriz aberastu zara zure abileziari esker. Ez didazu fitsik zor eta gure adiskidetasunak lehen bezala segituko du.

Diotenaren arabera, haien adiskidetasunak biziki luzaz iraun zuen eta herioak baizik ez omen zituen bereizi.

Ipuin herrikoia

Musika: Paxkal Irigoien

SORGINA ETA KONKORRAK II. diskoa - 3

Behiala, Urdazubiko sorgin zahar bat ostiral gau oroz joaten omen zen akelarrera, bere eginbidearen betetzera.

Sorgin hori bere bi anaia donado eta konkorrekin bizi zen. Bi anaiek sumatzen zuten arreba sorgin zela eta haren barrandan egoten ziren.

Egun batez, anaia batek atsoaren atea jo eta honela erran zion:

–Noizbait gogotik joanen nintzateke zurekin bilkura horietarik batera.

Atsoak ez ulertuarena egin zuen:

–Zer bilkuratara? Nora ote? Ez dakit zer derasazun!

Baina gizona tematu zen eta azkenean, emazteak egia aitortu zion:

–Baietz, bai, ostiral oroz akelarrera noa. Ondoko aldian eramanen zaitut baina erranen dizudana kaskoan ontsa sar ezazu! Biltzarburuak asteko egunak bata bestearen ondotik errateko manatuko digu denei eta honela erran beharko dituzu: astelehena, astearte, asteazkena, osteguna, ostirala eta larunbata. Iganderik ez duzu aipatu beharko! Buruan hartu duzuia?

Konkorra ados zen eta ondoko ostiralean elkarrekin joan ziren delako akelarrera.

Han, baziren ehunka sorgin, gizon eta emazte, zahar eta gazte, eta erdi-erdian Sorgin Nagusia, besapean liburu handi bat atxikitzen baitzuen. Berehala aulki gorri bat ekarri zioten eta Sorgin Nagusia han jarri zen. Hango guziak haren aitzinetik pasatzen ziren eta liburuari musu eman ondoan, asteko egunak erraten zituzten sorginak anaiari aholkatu bezala: astelehena, astearte, asteazkena, osteguna, ostirala eta larunbata. Bere aldi izan zelarik, egoerak doi bat durduzarazten baitzuen, konkorrak erran zuen:

–Astelehena, astearte, asteazkena, osteguna, ostirala, larunbata eta igandea.

Orduan Sorgin Nagusia brau! zutitu zen eta oihu egin zuen:

–Nork aipatu du igandea?

–Jauna, jauna, jauna, erantzun zioten besteek, konkorr hori da hobenduna!

–Ken diezaiotela bizkarreko konkorr hori!

Eta hala egin zuten. Gizona, konkorrrik gabe, kontenxko itzuli zen etxera. Anaia harritu zen hala ikustean eta galdegin zion nola kausitu zuen bizkarraren zuzentzea.

Besteak gertatu zitzaiona xehe-xeheki kontatu zion eta hura ere entsea zedin aholkatu.

Hola bada, beste anaiak ere sorginari akelarrera eraman zezan eskatu zion.

–Eramanen zaitut baina hitzeman behar didazu “igande” hitza ez duzula aipatuko.

–Zaude lasai, ez dut gure anaiak bezala eginen, ez alafede!

Ostirala heldu zelarik, erran bezala, biak akelarrera joan ziren. Han, anaiak kontatu bezala iragan zen dena eta asteko egunen errateko mementoa gertatu zelarik, honela ari izan zen:

–Astelehena, astearte, asteazkena, osteguna, ostirala, larunbata eta igandea.

Sorgin Nagusia brau! zutitu zen oihukatuz:

–Nork aipatu du igandea?

–Jauna, jauna, jauna, erantzun zioten besteek, konkorr hori da hobenduna!

–Behin paso baina bi aldiz sobera da! Lehenaren konkorra ezar diezaiotela!

Eta gizon gaixoa bi konkorrekin itzuli zen etxera. Ez zituen sekula kendu ahal izan, sorgina etxe hartatik desagertua baitzen eta akelarrera itzultzeko paradarik ez baitzuen gehiago ukan.

Ipuin eta musika herrikoiak

ALABA ETA ALABAIZUNA II. diskoa - 4

Behin bazen emazteki bat, alarguntsa gelditua. Bi haurren ardura zuen, bata alaba eta bestea alabaizuna. Maiz gertatzen den bezala, alaba itsutuki maite zuen eta alabaizuna, aldiz, ikaragarri hastio, zenbatenaz ere hastioago, hainbatenaz itsusiago baitzuen alaba eta ederrago alabaizuna.

Goiz batez bada, alabaizuna oihanera marrubiketa igorri zuen, zarea beterik ekar ziezaion, ez bazituen bereak eta asto beltxarenak entzun nahi.

Negu mina zen eta hotz izigarria zen; buru-buztanik ez zuen marrubiketa abiatzeak! Baina bazekien gaixo haurrak bere manuak manu eta bere mehatxuak mehatxu zituela amaizunak.

Zarea besoan joan zen oinutsik eta erdi biluzirik, ama zerukoari hel eginez. Eta bazihoan... bazihoan... haia-haia.

Oihanera heltzean, gertatu zitzaion etxola baten ondotik iragatea. Etxola hartan baziren hiru gizon. Batek galdatu zion:

–Nora zoaz, haur ederra, hola paperez beztu hotz horrekin?

–Amak igorria nau marrubiketa.

–Marrubiketa? Sasoi honetan? Nolako ama duzu?

–Amaizuna dut.

–Alabaina.... Etxola gibel horretan atzemanen dituzu marrubiak, egurpean. Badukezu ausarki zarearen betetzekoa.

Eta hala-hala gertatu zitzaion: marrubi ederrez bete zuen zarea. Eta, ongi ikasia baitzen, etxolara itzuli zen eskerren bihurtzera.

–Erranen duzun solas bakoitz, atera dakizula urre-peza ahotik –zion batek erran.

–Edertuz zoazela egunetik egunera –zion desiratu bigarrenak.

Eta hirugarrenak:

–Hil ondoan zerura eraman zaitzatela aingeruek.

Ez zen amaizuna guti harritu ikusi zuelarik alabaizuna zarea marrubiz beterik itzultzen.

Are gehiago oraino ohartu zelarik hitz bezainbeste urre botatzen zuela.

–Non izan haiz? Nondik heldu haiz?

Eta neskak kontatu zion nola, oihanera heltzearekin, etxola bat kausitu zuen eta etxolan hiru gizon. Haiek ziotela erakutsi marrubiak non bil.

Emazteak orduan alaba deitu zuen eta alabaizunari manatu etxolarako

bidea erakutsi ziezaion. Zarea besoan abiatu zen alaba, lorietan...!

Etxolara heldu zelarik, han ziren oraino hiru gizonak. Neskari erran zioten:

–Zu ere, dudarik gabe, marrubiketa heldu? Zaretara batekin ez zenuten, beraz, aski? Marrubirik ez baita haatik gehiago!

Eta, berga bat luze mutur baitzegoen haurra, erran zion batek:

–Hitz bezainbeste apo aurtikiko dun!

Eta besteak:

–Itsusiago izanen haiz egunetik egunera!

Hirugarrenak:

–Galtzagorrik haramala hil eta infernu zolara erretzera!

Amaren hisia eta haserrea ikustekoak ziren, alabañoa itzuli zitzaizolarik zarea hutsik eta sekula baino itsusiago. Nolaz ez zuen han berean alabaizuna ausikika eta aztaparka xehatu, Jainkoak daki!

Biharamunean bortitzagoa zen oraino hotza, iparra firrindan buhaka ari. Zer mendekuaren parada!

Amak alabaizuna iturrira igorri zuen zenbait astariren latsatzera. Joan zen bada gaixoa, hotzez daldaran, oinutsik eta erdi biluzirik.

Eskuak gogortu-zurrunduak ukanik eta, ez zuen haurrak indar handirik ematen ahal eta bere lanari ari zen xafla-xafla ahal zuen bezala.

Hainbestenarekin, mutiko gazte eta lerdan bat iragan zen han gaindi. Neska, holako pilda txarretan ikustearekin latsatzen ari, zimiko egin zion bihotzak. Galdatu zion:

–Zer ari zara hor, haur ederra, holako hotzarekin?

–Ikusten duzu, jauna. Amak igorria nau hari hauen garbitzera.

–Amak igorria? Eta planta horretan? Zer ama mota da zure ama?

–Amaizuna dut.

–Hola paso! Zatoz enekin. Hain segur alabatzat hartu nahiko zaitu gure amak.

Eta neska jarraiki zitzaion. Laster heldu ziren jauregi eder-eder batera. Eiki, mutiko gaztea errege zen eta jauregia haren ihizi-sasoiko egongia.

Neskatxa haurtzat hartu zuen Erregeren amak. Errege eta neskatxa itsutuki maitemindu ziren, eta denbora guti barne ezkondu.

Ipuin herrikoia

Musika: Xabi Etxeberri

LURRA II. diskoa - 5

Duela milaka eta milaka urte, gizon-emazteak Lurraren jendeztatzen hasi zirenean, ez zen ez Eguzkirik ez eta Ilargirik, eta jendea ilunpean bizi zen, Lurraren barnetik ateratzen ziren jeinuen beldur. Jeinu horiek itxura anitzetakoak ziren: zaldi hegalaria, herensuge, suzko-zezen eta beste.

Etsipenez, gizon-emazteak Lurrari laguntza galdatzera deliberatu ziren.

–Amalur –otoiztu zuten–, geldi-geldia gainean ditugun arriskuetatik begira gaitzazun eskatzen dizugu.

Lurra lanpetua zegoen eta ez zien kasurik egin, baina gizon-emazteek behin eta berriz gauza bera eskatzen zioten, eta azkenean, erran zien:

–Seme-alabak, laguntza eskatzen didazue eta lagunduko zaituztet. Argizko izaki bat sortuko dut eta Ilargi izena emanen diozue.

Eta Lurrak Ilargi sortu zuen.

Hastapenean, gizon-emazteak izituak ziren eta ez ziren leize-ziloetatik ateratzera menturatzen baina pittaka-pittaka usatu ziren.

Jeinuak eta sorginak ere ikaratu ziren zeruan halako gauza dirdiratsua ikusi zutelarik, baina haiek ere usatu ziren, eta laster leizeetatik jalgi ziren, jendeari jazartzen berriz aritzeko.

Gizon-emazteak Lurrarengana itzuli ziren:

–Amalur –erran zioten–, satisfos gara Ilargi amandrea eskaini diguzulako, baina beste zerbait azkarragoa behar genuke, jeinuak geldi-geldia ari baitira gure erasotzen.

–Ederki; Ilargi baino izaki argitsuago bat emanen dizuet. Eguzki deituko duzue.

Eguzkia egunaz agertuko da eta ilargia gauaz.

Eta Lurrak Eguzki sortu zuen.

Handia, argitsua eta beroa zen. Jendeak usatu behar izan zuen, baina ondotik, neurrigabeko zoriona sentitu zuen, Eguzkiaren beroari eta argiari esker, mila koloreko landareak eta fruitu-ondoak hazten hasi baitziren. Gehiago dena, jeinu eta sorginak ez baitziren eguneko argitasunari jartzen ahal, gauaz baizik ez ziren jalgitzen.

Gizon-emazteak berriz ere Lurrarengana joan ziren.

–Amalur –erran zioten–, eskertzen zaitugu ilargi amandrea eta Eguzki amandrea eskaini dizkiguzulako, baina beste zerbaiten beharretan gaude. Egunaz ez dugu arazorik, baina gaua heldu delarik, jeinuak leizeetatik jalgitzen dira eta erasotzen gaituzte. Berriz ere Lurrak erran zien:

–Ederki. Azken aldikotz lagunduko zaituztet. Lore eder bat sortuko dut, zuentzat. Biziki ederra izanen da eta gaueko izakiek, hura ikustean, Eguzkia dela uste izanen dute.

Eta Lurrak eguzki-lorea sortu zuen. Gaur egun oraino ateetan zintzilikatzen dira, etxeak gaitz guzietatik begiratzten baitituzte. Izpiritu gaiztoak, aztiak, lamina tzarrak, eritasunen jeinuak, ekaitzak eta beste etsai guziak urrun atxikitzen dituzte.

Ipuin herrikoia (Ikus azken orrialdeko oharrak)

Musika: Paxkal Irigoien

ONGIA EGITEAK ZER BALIO DUEN II. diskoa - 6

Harri handi baten azpian preso harturik, otso bat zalapartaka ari da eta oihu saminak botatzen ditu:

–Hel! Hel!

Bat-batean, gizon bat hurbiltzen zaio.

–Atera nazazu hemendik adiskide, libra nazazu! otoizten du otsoak.

–Bai, baina atera eta gero, ikimiliklik janen nauzu.

–Ba pentsa! Ez zaitut janen. Fundi ezetz! Zepo honetarik atera nazazu!

Luzaz duda–mudan egonik, azkenean, behin eta berriz entseatzearen bortxaz, gizonak harria altxatzen du.

Hara orain gure otsoa libro.

Ontsa kontent, jauzika eta punpaka hasten da.

Gero, begiak dir–dir eta ezpainak milikatuz, otsoa gizonaren ondo–ondoan plantatzen da, erranez:

–Gose denak... jan behar du! Berehala irentsiko zaitut beraz!

–Hitzemana didazu ez nauzula janen!

–Hitzemana, bai. Baina gose denak jan behar du –eta atzaparrak erakusten dizkio.

–Zaude, zaude, hauxe proposatzen dizut: goazen biak bidez–bide eta atzemanen ditugun lehen hiru lagunak kontseiluak entzunen ditugu. Erraten badigute ongiaren egiteak ez duela deus balio, ez duela merezi, ba orduan, jaten ahalko nauzu!

–Ados! Ados! ihardesten dio otsoak, maltzurki.

Gizona eta otsoa ttipi–ttapa abiatzen dira.

Bide bazterrean aurkitzen duten lehena zakur bat da. Gosea tripan, kukusoek jana, herrestan dabil gaixoa...

Otsoak ozenki galdetzen dio:

–Errazu zakur ederra, zure ustez, ongia egitea balio ote du?

–Ongia egitea? Ez du deusetarako balio! Nik, lehen, nagusiari erbiak harrapatzen nizkion eta dozenaka ekartzen. Orain, zahartua bainaiz, ez dit estimurik erakusten eta gosez hiltzera uzten nau!

Zakur gosetiaren kontseilua entzunik, otsoa eta gizona aitzina doaz.

Ondotik, behi zahar bat aurkitzen dute. Honek ere itxura arrunt tristea du. Hezur eta larru egina da.

–Aizu, behi gizona – galdegiten dio otsoak – zure ustez, balio ote du ongia egitea?

–Niri, ongia egiteak tratu txarra baizik ez dit ekarri. Egunero, hogeita hamar pinta esne ematen nizkion nagusiari. Beste behiek baino askoz gehiago. Baina nagusiak ez nau sekula eskertu. Eta gaur egun, esne guti dudalakotz, ez nau bazkatzen ere!

Orduan otsoak, orro itsusi bat eginez, gizonari erraten dio:

–Ez da dudarik, jan behar zaitut!

–Baduzu burutik? Hirugarren iritzia ez dugu entzuna oraino! ihardesten dio gizonak ahal bezain fermuki.

Egia erran, gaizoa, gero eta beldurtuagoa da. Otsoa aldiz pozik...

Bakoitzak berea gogoan, bidea triki–traka segitzen dute.

Urruntxago, azeri bat agertzen zaie.

Otsoak, berehala:

–Errazu, axerito, ongia egitea balio ote du?

–Ongia egitea merezi duenetz? Nolako ongia den ikusi behar da lehenik.

Bai gizonak, bai otsoak, gertatu istorioa xehe–xeheki kontatzen diote azeriari.

Azeriak burua higitzen du, begiak hesten ditu hobeki pentsatzeko eta deblauki mintzatzen da:

–Otsoko, zinez argi eta garbi ikusi behar dut, xuxen non eta nola kokatua zinen.

Eta hirurak harripera itzultzen dira.

–Hauxe duzu delako harria; honen azpian nintzen harrapatua, aitortzen dio otsoak azeriari.

Gizonak eta azeriak, bien artean, alegia deusez, otsoa ezartzen dute lehenago zegoen bezala... harripean preso!

Orduan azeriak erraten dio:

–Otsoko, geldi hadi hor, ongia egiteak zer balio duen ikasi arte!

Ipuin herrikoia

Musika: Paxkal Irigoien

ARTZAINA ETA LAMINA II. diskoa - 7

Artzain gazte bat mendi-mendian zebilen bere artaldearekin... Behin, kantu eder bat entzun zuen. Kantu bat... liluragarria!

Ardiak ahantzirik, kantu hura ateratzen zen lekura jo zuen.

Sasien artetik pasatuz, zalu-malu errekaen ondora hurbildu zen.

Eta zer ikusi zuen? Neska paregabe bat... errekaen erdi-erdian zegoen arroka baten gainean jarririk.

Ile luzeak zituen, biziki luzeak eta horail-horailak...

Urrezko orrazi batez poliki-poliki leuntzen zituen, eta aldi berean kantuak xaramelatzen.

Artzain gazteak hotzikarak sentitu zituen. Batere ezagutzen ez zuen neska arraro hari so eta so gelditu zen, arrunt zoratua...

Halako batean, neska kantatzetik gelditu zen, eta... plast! urean sartu.

Zer zorigaitza artzain gaztearentzat!

Ez zuen luzaz iraun, neskak burua agertu baitzuen, hantxe, arrokaen gibeletik.

Baina agertu orduko... dzast! desagertu zen! Joko bera bizpalau aldiz egin zuen...

Azkenean neskak artzain gazteari galdatu zion:

–Nor zara?

–Ni, Antton. Eta zu, nor zaitut?

Neskak irri-karkaila bat bota zuen, eta brix! urean sartu zen.

Neskak ez zuen bere burua gehiago erakutsi.

Antton, kopetilun, herrira itzuli zen bere artaldearekin.

Hiru egunez ez zen etxetik mugitu. Neska hura gogotik ezin kendurik... Baina ardiak, gosez marraka eta marraka ari zitzaizkion, eta mendira abiatzera bortxatua izan zen.

Bidean berriz ere kantu eder baten oihartzuna entzun zuen... Anttonen poza!

Ardiak utzirik, briu-brau, neskarengana hurbildu zen.

Neska kantatzetik gelditu zen, eta, lehenago bezala, ileak orraztatzen segitu zuen, arroka baten gainean.

Isil-isilik luzaz elkarri begira egon ondoan, neskak Anttoni galdatu zion:

–Enekin ezkondu nahi zenuke?

–Bai! –erantzun zion artzain gazteak ahoan bilorik gabe.

Neskak eraztun bat eskaini zion eta desagertu zen.

Etxera itzuli bezain laster, Anttonek amari:

–Ezkonduko naiz!

–Ai, seme! Ezkondu? Eta norekin bada?

–Mendian ezagutu dudana neskak batekin. Munduko ederrena...

–Baina, seme, nor da? Burasoak zertan ari zaizkio?

–Bizian ikusi dudana neskari miresgarriena da...

–Seme, seme, iduri likek sorgindua haizela...

Ama sukaldetik atera zen eta jende andana batekin mintzatzen hasi: amaxirekin, Martin osabarekin, Panpi anaiarekin, Katixa auzoarekin. Bakoitzak bere iritzia ematen zion:

“Sorgina baldin bada...”; “Lamina baldin bada...”. Eta azkenik haxe entzun zuen:

–Lamina baldin bada, ahate oinak ukanen ditu. Ahate-patak...

Ama lasterka itzuli zen etxera.

–Seme, ados nago ezkon zaitezen, baina lehenik andregaiaren oinak ikusi behar dituzu.

–Baina, ama, zertako?

–Hitzeman ezazu, seme, hitzeman, gero ikusiko...

–Nahi duzunaz geroz, begiratuko diet.

Kezkatua baino kezkatuago, Antton mendira joan zen. Sasien artetik pasatuz, azantzik egin gabe, erredera hurbildu zen.

Dama gaztea bainatzen ari zen eta arraintxoekin jostetan, igaraben gisara sartuz eta ateraz...

Irriño zoragarria zeukan ezpainetan baina Anttonek oinak ikusi zizkionean, sekulako bihotz-ziztakoa bildu zuen... bere neska maitearen oinak ez ziren beste guzrienak bezalakoak!

Anttonek hobeki behatu zien. Ez, ez zen ametsetan ari. Neskak ahate oinak zeuzkan, ahate-patak. Hau zorigaitza!

Antton tira ahala lasterka etxera itzuli zen. Arrunt galdua, zinez aztoratua...

–Eta, seme? Zer gertatu da? Neskaren oinak ikusi ote dituzu?

Erantzunik ez. Amak, berriz galdatu zion:

–Nolako oinak ditu?

Baina Anttonek ez zuen mintzatzeko kalipurik. Ikusi zuena ez zezakeen onar.

Ez zitzaion hitz bat baizik atera: “Ahate...”

Amak berehala konprenitu zuen.

–Ai, seme, ez zara sekula harekin ezkontzen ahalko!

Artzain gaztea eritu zen. Egunak iragan zituen ohean, sukarra ezin kasatuz.

Aurpegi eder hura geldidageldia agertzen zitzaion eta haren boza entzuten zuen deika eta deika: “Zatoz, Antton, zatoz...”

Baina ez zen joan eta egun batez, penaren penaz, hil zen.

Ehorzketa eguneko goizean, lamina Anttonen etxera joan zen, musu ezti bat eman zion kopetan eta gorputza mihise zuri batez estali zion.

Gero lamina mendira itzuli zen.

Gau eta egun negar egin zuen, negar eta negar. Eta haren malkoak isuri ziren lekuan iturri bat sortu zen.

Badakizue nola duen izena?

Amodio galduen iturria.

Zoazte, zoazte mendi aldera, hain segur zuek ere, noizbait, nonbait, aurkituko duzue...

Ipuin herrikoa

Musika: Paxkal Irigoien

Ipuin guziak herrikoiak dira, antzerki gisa emateko Kattalin Salaberrik eta Jokin Irungaraik egokituak.

Andere eta Lurra ipuinei buruz bi ohar.

Andere ipuina ez da euskal mitologiaren tradizioan kokatzen. Tradiziotik hartu elementu zenbaitetan oinarritua den interpretazio eta sorkuntza librea da.

Lurra ipuina Toti Martinez de Lezearen sorkuntza eta interpretazio batean oinarritua da. Toti Martinezen sorkuntzak Jose Migel Barandiaranen Diccionario de la mitologia vasca liburuko «Lurra» paragrafoa hartu du abiapuntu gisa, baina ez da osoki tradizioan kokatzen (Barandiaranen hiztegian errana da Lurra Ilargiaren eta Eguzkiaren ama dela, baina «Amalur» izena ez da ageri, eta ipuineko gertakariak ere asmatuak dira.)